

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

-Enpresa batek aurrera egiteko beharrezkoak ditu aktibo ezberdin batzuk. Horiek dira funtsezko baliabideak. Lau daude fisikoak, intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

BALIABIDE FISIKOAK:

-Gure kasuan lokal bat beharko dugu aplikazioa ongi eramateko, horretarako, taldekide baten ekarpena dirutan izan beharrean lokalaren bidez egingo da. Gure lokala 100 metro karratu izango ditu gutxi gorabehera. Baita ere guretzako lau ordenagailu erosiko ditugu eta hauen kostua 300 euro ingurukoa izango da eta hauek proiektatu al izateko ere 4 pantaila, bakoitzak 100 euro balio dute. Gero hauek ezartzeko 4 mahai erosiko ditugu amazonen bidez eta hauen kostua 34,99 euroko ingurukoa izango da eserleku bat izateko bakoitzarentzako ofizinarako aulki bat erosiko dugu 30 euro inguru balio duena. Sarean ibiltzeko beharrezkoa izango da wifi sistema bat kontratatzea, orduan, telefonía konpainia bat kontratatuko dugu router bat jartzeko. Konpainia hau MasMovil izango da merkatuko konpainia merkeena delako.

BALIABIDE INTELEKTUALA:

-Bertan azaldu beharreko atalak: marka, informazio pribatua, patenteak, egile-eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu basea.

-Gure aplikazioa sortzeko beste enpresa bat subkontratatuko dugu (App Design), eta honen kostua 20.000 euro ingurukoa izango da eta aplikazioaren patentea ordaintzea beste 400 euro.

GIZA-BALIABIDEAK:

Giza baliabideak dira, beharrezkoak diren langileak. Gure kasuan lau informatikari izango gara aplikazio bat nola mantendu eta eguneratu dakigunak. Langile bakoitzak aplikazioaren hainbat leku ezberdinetan lan egingo dute. Hasieran baita ere gure app-a hoberen funtzionatu dezan lan inportanteenak denen artean banatuko ditugu. Gure aplikazioa jendearen artean zabaltzeaz eta honen funtzionamendua egokia dela zehazteaz Asier arduratuko da. App-ak dituzten enprekin harremanetan egotea, Google Play eta Apple Storeekin adibidez, Gabi arduratuko da. Gure bezeroen ongizatea bilatuz, gure email-aren eta telefonoaren arduraduna izendatu dugu Alain, gure bezeroen zalantzak argitzeko edo laguntzeko egongo da. Gure app-a bertan behera gera ez dadin, pertsona bat egongo da app-aren berrikuntzak eta hobekuntzak bilatuz, pertsona hau Gorka izango da. Proiektu

aurrera doan heinean kontratazio gehiago egingo ditugu behar badira, baina hori ez dugu priorizatuko.

FINANTZA-BALIABIDEAK:

Proiektu martxan jartzeko behar dugun dirua gutxi gorabehera baliabide fisikoen aldetik, lokala doan, 4 ordenagailuak 1200€, 4 pantaila 400€, gero mahaiak 149,96€, 120€ aulkiak, MasMovilen zuntz-optikoa 24,99€ hilabetero; guztira 1894,95€.

Baliabide intelektualei dagokionez 20.000€ gutxi gorabehera izango da. Azkenik, giza-baliabideei dagokionez langileen soldatak hilabetero izango dira produzitzen dugunaren arabera.